


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 jaitsi dira 2021eko uztailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (2021eko uztaila, 2020ko uztailaren aldean), kostuak % 2,0 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,2 jaitsi da 2021eko uztailean, aurreko hilaren aldean. Urteko urterako terminoetan, berriz, kostuak % 2,0 igo dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 0,2 beheratu dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak, berriz, egonkor mantendu dira (% 0,0). 2020ko uztailaren aldean, prezioak % 2,1 igo dira Etxegintzaren kasuan eta % 1,4 Obra Zibilarenean.



Aurreko hilabetearekin alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,2 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaiak % 2,0 igo dira, eta eskulana % 1,9.

Uztailean, Etxegintzaren sektoreak % 0,3ko hil arteko jaitsiera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilaren sektorea, bestalde, bere horretan mantendu da (% 0,0). Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 2,2 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 1,3.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntzatasak(p). 2021ko Uztaila

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	108,6	-0,2	2,0
Eraikinak	108,7	-0,2	2,1
Obra zibila	107,9	0,0	1,4
LEHENGAI	108,0	-0,2	2,0
Eraikinak	108,2	-0,3	2,2
Obra zibila	107,1	0,0	1,3
LAN-ESKUA	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, 2021eko uztailan, 2020ko uztailaren aldean, sektore hauetan nabarmendu dira igoerak: *Petrolio finntzea* (% 29,6 gora), *Metalurgia* (% 26,5) eta *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 9,4). *Mineral ez-metalikoen* izan da sektore bakarra zeinean prezioek urte artean behera egin duten: % 5,7 jaitsi dira.

Urte arteko hazkunde-tasak kontsumitutako lehengaien prezioetan (p). 2021ko Uztaila

	m / m-12
A64 SEKTORIZAZIOA	
04 - Ez-metalezko meak	-5,7
07 - Zuraren eta kortxoaren industria	9,4
10 - Petrolio finntzea	29,6
11 - Industria kimikoa	8,5
13 - Kautxua eta plastikoa	0,8
14 - Produktu mineral ez-metalezkoak	1,8
15 - Metalurgia	26,5
16 - Metalezko artikulak	3,5
17 - Material elektronikoa	8,3
18 - Material elektrikoa	2,5
19 - Makineriaren fabrikazioa	0,5
22 - Altzarigintza	2,7
24 - Energia elektrikoa eta gasa	6,7

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62